



## **ALDEZ AURREKO KONTSULTA, ARABAN DESPOPULATZEKO ARRISKUAN DAUDEN ZONEI BURUZKO NEURRIAK HARTZEKO FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUAZ.0}**

Bat etorri zedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako aurreproiektua prestatu baino lehen kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak,
- b) onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Aurrekoa betez, ondorengo kontsulta hau planteatzen da, gero eta hutsago dauden zonetara pertsonak iristea erakargarriagoa izan dadin arau esparru egokia ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute abuztuaren 6ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Zergei buruzko hainbat foru arauri eragingo die.
--------------------	--------------------------------------------------



<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Araban despopulatzeko arriskuan dauden zonak daudenez, beharrezkoa da arau berriak garatzea, jendea erakartzeko eta despopulazioa saihesteko.
<b>ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	Onetsi egin behar da, aurreikusitako helburua lortzeko, hau da, jendea despopulazio arriskuan dauden zonetara iristea erakargarriagoa izan dadin.
<b>HELBURUAK</b>	Araban despopulatzeko arriskuan dauden zonekin lotutako zerga neurriak hartzea, pertsonak zona horietara iristea erakargarriagoa izan dadin.
<b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</b>	Ez dago bestelako erregulazio aukerarik.